



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2021eko abendua

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Carson McCullers

(Columbus, Georgia, 1917 – Nyack, New York, 1967)

Carson McCullers (jaiotze izenez Lula Carson Smith) 17 urte zituela New Yorkera joan zen Columbia eta New Yorkeko unibertsitateetan ikastera, eta 1937an Reeves McCullers idazlearekin ezkondu zen. Senarra izan zuena Georgian ezagutu zuen eta harreman luze eta korapilatsua izan zuten, baita ezkontzaz kanponko harremanetan ere, 1940an dibortziatu eta 1945ean berriz ezkondu ziren.

Carson McCullers-en lana Hegoaldeko Gotikoa deiturikoan kokatzen da. 1940an argitaratu zuen bere lehen nobela: *The Heart Is a Lonely Hunter*, kritika eta salmenta arrakasta handikoa.

1940ko hamarkadan, McCullersek **Tennessee Williams** antzerkigile estatubatuarra ezagutu zuen, eta bere eleberriarekin antzezlan bat egitera animatu zuen.

Yaddo artisten kolonian idazten hasi zen eta 1951n argitaratu ziren *The Ballad of the Sad Café* liburuan agertzen diren ipuin batzuk.

Istripu zerebrobaskular errepikatuek denbora luzez ezgaitu zuten, eta paralisi partzialak McCullers gurpil-aulki batera eraman zuen bere azken urteetan.



Kafe tristearen balada

"Herria bera eskasa da; ezer askorik ez dago han, soilik kotoi fabrika, langileak bizi diren bi gelako etxeak, mertxikondo bakar batzuk, eliza bat koloretako bi leihorekin eta kale nagusi ziztrin bat ehun yarda besterik ez dena..."

Horrela zabaltzen da Kafe tristearen balada, Carson McCullers-en obrarik ezagunena. Herriaren izena ez da aipatzen, baina ziur aski idazleak bere jaioterria zeukan gogoan lerro horiek idatzi zituenean, zeren eta horrelako leku hits, bakarti, bazterreko batean jaio baitzen Carson McCullers 1917an, Deep South edo Hegoalde Sakoneko Columbus herrian, Georgiako estatuan.

Carson McCullers en idazlanak

Kafe tristearen balada (1951) **N MCC**

Kritikak esandakoak

“...Pertsonaiak eta euren bizipenak izango dira orriotara giro goibel edo gatazkatsua ekarriko dutenak —konkordun liskartia, jockey sumindua, ama alkoholikoa, edo eskale-filosofoa—. Istorioen erdigunera ekartzen ditu “besteak”, arau sozialak urratzen dituztenak, eta haien inguruarekiko hartu-emanak erakusten dizkigu egileak, normaltasuna auzitan jarriz: “Berak ere bazituen bere bitxikeriak”.

Egoeren eta gorputzen deskribapenak nagusi dira, adibidez, protagonisten eskuen adierazkortasuna: ukabilak itxi, atzamarrak kakotu, edo hatz-koskorrekin hotsa atera. Gertaera konkretuen bidez gai unibertsalak aletuko zaizkigu, denboraren iragateari edo maitasunari buruzko hausnarketa proposatuko zaigu. Ahots narratiboak zuzenean irakurleari hitz egingo dio tarteka, istorioaren kontaketa mekanismoak bistan jarriz eta informazioa dosifikatuz...”

Amaia Alvarez Uria / Argia, 2021-06-27

“...Narrazio guztiek dituzte hainbat ezaugarri komun: marjinalaren errepresentazioa gailentzen da haren literaturan (homosexual erreprimituak, alkoholismoa, desgaituak); moteltasun, ezerez, aura batek inguratzen ditu halaber istorio hauek, zeintzuk ezer (ona) gertatzen ez den leku bateko pertsona arrunten eguneroko gisa uler daitezkeen, eta zeintzuek Hegoalde sakoneko ingurua atsekabegarri aurkezten duten. Are, ipuinetako batzuek joera autofikzional zehatzagoa ere badute; haur musikari bati eskainitako piezan, McCullers en bizitzan gatazkatsua izan zen gaitasuna fikzionatzen da; idazleak, bere ama anbiziotsuaren insistentzia lagun, New Yorkeko kontserbatoriorainoko bidea egin zuen piano-piezak interpretatuz, horrek artekatzen zuen arren. Ezkon-harreman gatazkatsu baten kronika ere badago, bere bizitzako hainbat pasadizorekin alderagarria dena. Kontakizun hauek gehiago balio dute esaten ez denagatik, esaten dutenagatik baino...”

Aiora Sampedro / Berria, 2020-11-15

Erabilitako iturriak

Euskarari ekarriak

<https://ekarriak.armiarma.eu/?i=1365>

Kulturklik

<https://www.kulturklik.euskadi.eu/creacion/2020/kafe-tristearen-balada-/z12-detalle/es/>

Uberan

<http://www.uberan.eu/?gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/ehiztari-bakartia-izan-zen-carson-mccullers-eta-halakoxeak-dira-haren-pertsonaiarik-onenak-ere>

Kritiken hemeroteca

<https://kritikak.armiarma.eu/?p=8381>

<https://kritikak.armiarma.eu/?p=8206>